

Euskal erakundeen adierazpena, Euskadiren eta Estatuaren arteko Kontzertu Ekonomikoaren eta Kupoaren alde

Lehendakariaren, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ahaldun nagusien eta Euskadiko Udalen Elkarteko (EUDEL) presidentearen adierazpena, Kontzertu Ekonomikoaren eta Kupoaren alde egiteko.

Lehenbizikoa: Kontzertu Ekonomikoa defendatzen dugu, alde biko akordio politiko eta euskal autogobernuaren oinarritzko osagai gisa.

Euskal erakundeek eta Estatuako administrazioak zergen eta finantzen esparruan dituzten harremanak arautzeko lege-tresna baino gehiago dira Kontzertu Ekonomikoaren eta Kupoaren sistema.

Euskal erakunde guztiei eragiten die sistema honek, hau da, Batzar Nagusiak, Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritza eta Udalak.

Euskadiren eta Espainiako Estatuaren arteko bizikidetzaren funtsezko elementu dira.

1.- Gaur egungo Espainiako Estatu eraikitze prozesua baino lehenagokoa den errealitate historiko batetik dator Kontzertu Ekonomikoaren sistema.

Euskal Herriaren eskubide historikoetan du iturburua, eta 1878an, foruak ezeztatu ondoren, Estatuarekin lortutako alde biko akordioan du oinarria.

2.- Alde biko akordio politiko horrek gure foru-araubidea eguneratzen du.

Eskubide historikoen gaur egungo aintzatespen dira, eta Konstituzioak eta Gernikako Estatuak osatzen duten konstituzionaltasun-blokean aurreikusi dira.

3.- Kontzertua indarrean badago, euskal gizartearen eta erakundearen autogobernu nahi etengabea eta buruantolatze ahalmena daude oinarrian.

Itun-izaerak ezaugarritzen du.

Itundutako legeak, hitzartuak, dira Kontzertua arautzen duten legeak eta Euskadik Estuari ordaintzen dion Kupoari buruzko bost urtean behingo legeak.

4.- Kontzertu Ekonomikoa eta Kupa alde biko-tasun-printzipioan oinarritzen dira.

2002an berretsi zen, Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak Kontzertu Ekonomikoaren izaera mugagabea adostu zuten urtean.

5.- Europako Batzordeak bermatzen du alde biko itun politiko hori.

Luxenburgoko Justizia Auzitegiak 2008an eman zuen Kontzertu Ekonomikoaren zerga-sistema Europako araudiarekin eta Batasunaren Itunarekin bat datorrela berresten duen sententzia.

Bigarrena: sistema eraginkor eta solidario gisa alde biko dugu Kontzertua.

1.- Kontzertu Ekonomikoaren sistemaren ondorioz, beren gain hartutako eskumenak finantzatzeko beharrezko zergak erregulatzeko eta biltzeko gaitasuna dute euskal erakundeek.

Aldi berean, kontribuzio bat ematen diogu Estuari, Kupo gisa, hartu gabeko eskumenak finantzatzeko: hau da, Estatuak Euskadiri emandako zerbitzuak finantzatzeko.

Euskal erakundeentzat, aldebakarreko arriskua dakarren sistema bat da Kontzertu Ekonomikoa: izan ere, Euskadik beti eman behar dio Estatuari adostutako Kupoaren zerga-bilketa nolakoa izan den aintzat hartu gabe.

Ondorioz, euskal erakundearen osotasunari dagozkien zergen eta aurrekontuen kudeaketa onak edo txarrak emandako onurak edo galerak; eta euskal gizartearengan eragingo dute soilik.

Konzertu Ekonomikoaren kudeaketak beti jarraitu ditu arduraren eta egonkortasunaren printzipioak. Euskadik zerga-konsolidazioko helburuak betetzen ditu, hala defizitari nola zerga publikoari dagokienez. Euskadik beti ordaindu dio Kupoaren Estatu Administrazioari.

Konzertu Ekonomikoa eta Kupoaren multzo zatietan bat osatzen dute Euskadi eta Estatuaren arteko zerga-harremanak eraentzen dituen sistema hitzartuaren konfigurazioan. Ezin da bata bestea gabe ulertu.

2.- Euskal erakundeak Estatuarekin solidarioak dira.

Euskal herritarrek ez dute Estatu Administrazioari diru-kutxatik jasotzen, bertara ematen baizik.

Kupoaren bitartez, Euskadik Estatuaren gastu orokorretan laguntzen du, bai eta Lurraldearteko Konpentsazio Funtsean ere.

Estatuaren Administrazio Orokorra superabita izan du Euskadiko jardun ekonomiko-finantzarioari esker. Euskal ekarpena % 6,24an finkatuta dago, biztanle-ratioaren gainetik (% 4,6) eta aberastasun-ratioaren gainetik (% 6,07). Euskadi solidarioa da, dagokiona baino gehiago ematen du.

Hirugarrena: arduratsu jokatzeko eta Kontzertua babesteko deia.

Dei egiten diegu eragile instituzional, politiko, ekonomiko eta sozialei, arduratsu jokatu dezaten eta Kontzertu Ekonomikoaren eta Kupoaren ereduaren inguruko adostasunari eta itunari eutsi diezaioten.

Bereziki, eragile instituzional eta politikoei, kontu hau bidezko den alderdiarteko eta hauteskundearen lehiatik bazter dezaten.

Autonomia Erkidegoen finantzazio-sistemaren gaineko eztabaidak ez du Kontzertu Ekonomikoan bilatu behar balizko premiei buruzko azalpenik. Izan ere, erregimen komuneko finantzazio-ereduaren bideragarritasuna ez da euskal Kupoaren araberakoa.

Irmo eutsiko diegu Euskadiren eta Estatuaren arteko alde biko itun politikoaren babesari. Begirune handiena agertzen diegu Kontzertu Ekonomikoari eta Kupoari, bizikidetzaren politikoko tresna gisa eta gizartearen ongizaterako berme gisa.

Euskal autogobernua, orokorki, eta Kontzertu Ekonomikoa, zehazki, irmotasun osoz babesteko konpromisoa berresten dugu.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urriak 14